



EPE 2025. LEHIAKETA-OPOSIZIOA. BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOA

Informazio-oharra, Lanbide-heziketako espezialitate batzuetako programazio didaktikoari buruzkoa:

EAEko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduretarako deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduak (EHAA 2025/03/06), oinarrien artean (6.1.2.) xedatzen du "programazio didaktikoak Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden curriculumei buruzkoa" izan behar duela eta bertan "arauak ezartzen dituen curriculum-elementu eta -osagai guztiak jaso behar direla".

Era berean, Lanbide Heziketaren eremu zehatzerako, betiere "titulu eta heziketa-ziklo bakoitzari aplikatu beharreko curriculum-dekretuetan ezarritakoaren arabera", zehazki zehazten da programazio didaktikoak "konpetentzia profesionalak, lanbide-moduluak, konpetentzia-unitateak, ebaluazio-irizpideak, lorpen-adierazleak edo ikaskuntzaren emaitzak" izan beharko dituela, dagokionaren arabera.

Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuak (BOE 2023/07/22) eta Lanbide Heziketako tituluak ezarri eta gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege-dekretu jakin batzuk aldatzen dituzten maiatzaren 21eko 499/2024 eta 498/2024 Errege Dekretuek (BOE 2024/05/28), hainbat modulu kentzea eta modulu berriak sartzea ekarri dute, pixkanakako ondorioekin ikasturte honetan eta hurrengoetan. Azken dekretu horien arabera, "hezkuntza-administrazioek dagozkien curriculumak ezarriko dituzte, errege-dekretu honetan ezarritakoa errespetatuz eta 659/2023 Errege Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera".

Gaur egun, ordea, aurreikuspen hori ez da oraindik modu ofizialean garatu. Hala badagokio, dagozkion aldaketak Oinarrizko Curriculum-Diseinuaren Eguneratze Zirriborroan sartu dira soilik. Zirriborro hori kontsultarako dago eskuragarri, baita oraindik indarrean dagoen Oinarrizko Curriculum Diseinua eta titulu bakoitzari buruzko dekretu eta errege-dekretuak ere, Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren <https://ivac-eei.eus/es/familia-profesionalak/> (IVAC-EEI) estekaren bidez. Esteka hori Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren webguneko Lanbide Heziketako atalean dago.

Horren guztiaren ondorioz, oraindik amaitu gabe dagoen arau-trantsizioko egungo egoeran, goian aipatutako arau-aldaketek eragin dieten irakaskuntza-espezialitateetarako, modulu sortu berrien programazio didaktikoak ere onargarriak izango dira, betiere honako baldintza hauetara zorrotz egokitzen badira:

- Hautaketa-prozeduran parte hartzen den espezialitate zehatzak lege aitortutako irakaskuntza-atribuzioa duen lanbide-moduluren bati buruzko programazio didaktikoa baino ezin izango da aurkeztu.



- Eta 2024/2025 ikasturtean ikastetxeetan ezarri diren moduluei dagokienez soilik egin ahal izango dira. Ez, ordea, deialdiaren aginduaren data baino lehen ezarri ez direnei.
- Deialdi-aginduak berak berariaz eskatutako programazio didaktikoaren curriculum-elementu guztiak (heziketa-zikloaren helburu orokorrak, gaitasun orokorra, gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak, tituluan jasotako KPN-ren kualifikazioen eta konpetentzia-unitateen zerrenda, zeharkako konpetentziak, lanbide-ingurunea eta zeharkako konpetentziei lotutako ikaskuntzaren emaitzak, eta ebaluazio-irizpideak) dagokien ziklo edo titulurako gaur egun indarrean dauden curriculumei lotuta egon beharko dira nahitaez, EHAA argitaratutako dekretuetan agertzen diren bezala.
- Ikaskuntzaren emaitzei eta ebaluazio-irizpideei buruzko atalean soilik aipatu beharko dira uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuan berariaz ezarritakoak.
- Nahiz eta aipaturiko OCDaren Eguneratze Zirriborro horiek oraingoz ez duten balio legalik eta, ondorioz, ezingo diren erabili arau-erreferentzia gisa, informazio- eta kontsulta-material gisa hartu ahal izango dira kontuan, kasu bakoitzean egokien denaren arabera (adibidez, lanbide-modulu berrien eduki-multzoak definitzeko).

Aurreikuspen hauek segurtasun juridikoko eta aukera-berdintasuneko funtsezko gaiei erantzuten diete, ez bakarrik deialdi-aginduan bertan programazio didaktikoen baldintzei eta ezaugarriei buruz ezarritako baldintzak zorrotz betetzeko, baita epaimahaiak modu objektiboan eta ekitatiboan baino ezin dituztelako baloratu beren curriculum-esparru ofizialetan oinarrituta, dagozkien argitalpen ofizialetan (errege-dekretuak eta dekretuak) ageri diren bezala.

Edonola ere, onargarriak izaten jarraituko dute goian aipatutako araudiaren arabera ezabatutako, baina oraindik indarrean dauden eta gaur egun pixkanaka desagertzen ari diren (ikasturte honetan eta hurrengoan) curriculumetan sartuta dauden moduluen programazio didaktikoek. Kasu horretan, curriculum-elementu guztiek oraindik indarrean dauden curriculum horietan xedatutakoa bete beharko dute.

Gasteizen, 2025eko apirilaren 4an.